

# Ezaugarri nagusiak

**Istripuaren ondoriozko heriotza:** estalitako istripuaren ondorioz bada eta gertatu denetik urtebeteko epean aseguratua hiltzen bada.

**Ezintasun iraunkor partziala:** estalitako istripuaren ondorio zuzena bada eta gertatu denetik urtebeteko epean aseguratua kalte fisiko konponezinak baditu, ezintasun iraunkor osoan sartzen ez direnak.

**Ezintasun iraunkor osoa:** estalitako istripuaren ondorioz bada eta gertatu denetik urtebeteko epean aseguratua kalte konponezin hauetako bat badu:

Erabateko itsutasuna edo begi baten ikusmenaren galera totala.

Paralisi osoa.

**Gorputz-adar baten edo gehiagoren galera:** eskua, oina, besoa edo hanka.

**Bahiketa-gastuen berme osagarria:** garraiobidea bahitzeaz gero, aseguratzaileak ziurtagirian ezarritako kapitala ordainduko du gehienez, beharrezko gastu justifikatu gisa.

**Txartelarekin ordaindutako erosketen diru-itzulketaren bermea:** bizitza pribatuan edo lanean izandako istripu bat dela-eta aseguratua hiltzen bada edo ezintasun iraunkor osoarekin gelditzen bada, aseguratzaileak onuradunari emango dio dagokion zenbatekoa, titularraren txarteleko kontuaren laburpenean kargatutako erosketen zordunketari dagokiona, estalitako istripuaren azken hamabi hilabetetako.